

## Kapitulua ren gida didaktikoa

# Argazkilaritzaren oinarriak

Gure mundua irudiz josita dagoela ez dut uste inork zalantzan jarriko duenik. Irudiz inguraturik bizi gara. Irudia erabat sartuta dago gure egunerokotasunean. Askotan pentsatu ohi dugu: “telebistetako albistegiei laguntzen dieten irudiak gabe, egunkarietako eta aldizkarietako argazkiak gabe, ba al da bizitzerik?”

Bideoa **ARGAZKILARITZA, MINTZAIRA UNIBERTSALA** seriearen lehenengo kapitulua da. Bertan, argazkilaritzaren oinarrien berri ematen da. LANTEGIA deitu dugun atalean “kamera iluna” nola eraiki adierazten da.

02:42 Argazkilaritzaren hastapenak (SARRERA)

### Argazkilaritzaren oinarriak

04:50 Argia: argazkilaritzaren lehengaia

07:15 Kamera iluna

10:04 Material fotosentikorrak

11:33 Argazkilaritza eta ikusmena

15,31 LANTEGIA : Kamera iluna

### **LANTEGIA: Kamera iluna**

Atal hau ikusi eta gero, bertan egindako lana klasean egingo dugu. Horretarako, bideoan eman diren argibideak jarraituko ditugu. Ikasle taldea, ariketa hau egiteko, taldetan sailkatzea komeni da, ikasle bakoitzari eginkizun bat proposatzeko eta talde bakoitzak kamera ilun bana egiteko.

Erabiliko ditugun materialak:

Kaxa itxi bat edo kaxa egiteko materialak.

Landare papera eta zinta itsaskorra.

Kartoizko hodia eta lupa.

Gai itsaskorra (kola).

Guraizeak.      Labana.      Erregela.      Boligrafoa edo arkatza.

## ARGAZKILARITZAREN HISTORIA

Bideo bakoitzaren sarreran, argazkilaritzaren munduan izan diren gertakari eta aurkikuntza aipagarrienak adierazten dira. Atal honetan aipatzen diren datuen bidez, argazkilaritzaren historia laburra kontatu nahi da.

Historia bere osotasunean eraikitzeke, gida didaktikoetan ematen diren datuak koaderno batera aldatzea komeni da; horrela, seriearen ikustaldia bukatzean, gertakariaren koadroa erabat osatua izango dugu.

### **Argazkilaritzaren hastapenak:**

.- Grezia klasikoan ordurako ezagutzen zuten kamera iluna.

.- 1515ean, Leonardo Da Vincik ikusmena aztertu zuen.

.- 1550ean, Girolano Cardanok kamera ilunari lente bat erantsi zion.

.- 1727an, Schulze zilar gatzak argitan ipiniz berehala iluntzen zirela ohartu zen.

.- 1800ean, Thomas Wedwoodek zilar gatzaren bidez objektuen lehen siluetak lortu zituen.

**Argazki kamera.** Irudiak jasotzeko erabiltzen den gailua. Objektiboa ezarrita daukan kamera iluna.

**Kamera iluna.** Aldeetako batean zulo txikia daukan kaxa. Kanpoaldeko eszenak islatzen dituen argi izpiak, zulo txotik sartzen dira eta, barruko beste aldeko aldean proiektatzen. Bertan kanpoko eszenaren irudia eratzten da.

**Diafragma.** Objektiboa iragaten duen argi kopurua erregulatzen duen gailu mekanikoa. Xafla metalikoz osatua dago.

**Fotosentikorra.** Argiaren eraginez eraldatzen diren gaien ezaugarria.

**Goikoz beherako irudia.** Kamera ilunaren barruan atzealdeko aldean eratzten den irudia. Argi izpien norabide zuzena dela eta eratzten da irudia goikoz behera.

**Lente konbergenteak.** Argiaren izpiak batzen dituztenak. Hauexek dira argazkilaritzan erabiltzen diren lenteak. Izan ere, izpiak batuz irudi argitsuagoak eta zehatzagoak lortzen dira. Erdialdean lodiagoak izaten dira.

**Lente dibergenteak.** Argiaren izpiak sakabanatzen dituztenak. Ez dute irudirik zehaztea ahalbidetzen. Erdialdean meheagoak izaten dira.

**Negatiboa.** Irudiak inpresionatzeko erabili ohi den pelikula. Laborategian, gai kimikoez baliatuz, negatibotik positiboa ateratzen da, eszenaren irudia lortzeko.

**Objektiboa.** Irudia fokatzea eta koadroa erabakitzea ahalbidetzen duten lenteak barruan daramatzan zilindro formako gailua. Objektiboak eszenak islatzen dituen argi izpiak jasotzen ditu, eta negatibora bideratzen.

**Obturadorea.** Objektiboaren eta pelikularen artean dagoen gailua. Bere zeregina esposizio denbora erregulatzea da, argazki kamera barrura sartu behar den argi kantitatea kontrolatzeko.

**Sentikortasuna.** Pelikulak argiaren aurrean daukan sentikortasuna adierazten duen zenbakia. ASA eta DIN balioetan adierazten da. Zenbat eta handiagoa den pelikularen sentikortasuna, orduan eta argi gutxiago behar izaten da argazkia egiteko.

## LIBURUAK

**La fotografía paso a paso.** Michel Langford.  
H. Blume Ediciones. -Madril- 1995

*Hauxe duzu eskuetan erabiltzeko libururik osoena eta ulerterrazena.*

**Macrofotografía.** W. Kruyt.  
**Retrato creativo.** P. Zeemeijer.  
**Técnica fotográfica.** W. Broekmyn.  
Parramón institutua. -Bartzelona- 1990.

*Hiru liburu hauek, batez ere, praktikoak dira. Eurretan adibide ugari aurkituko dituzu gai bakoitza jorratzeko.*

## Seriea osatzen duten bideoak

- 1.- Argazkilaritzaren oinarriak
- 2.- Argazki kamera
- 3.- Pelikula
- 4.- Esposizioaren kalkulua
- 5.- Irudiaren osagarriak
- 6.- Irudiaren egitura
- 7.- Konposaketaren artea
- 8.- Koloretako irudia
- 9.- Tresneria
- 10.-Argiztapen artifiziala
- 11.-Kamera sortzailea
- 12.-Argazkilaritza digitala

ekoizlea:

**iadi**

Banatzailea:



M. Ortiz de Urbina pintorea, 3  
11. bulegoa  
01008-Gasteiz  
Tel-faxa: 945200608

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILAK  
ONETSIA

2002-11-04